

Hitzaurrea



orionak Behinola zale guztioi!

1999-ko azaroan ikusi zuen argia lehenengo *Behinolak*, A letra zeramanak. Orain, 2013-ko ekainean Z letra daramana kaleratu dugu. 14 urte horietan atera izan diren beste Behinolek abezedarioaren gainerako letrak (letra kapitularrean) zeramatzaten. «Azken» *Behinola* honekin batera, letra kapitular guztiekin egindako poster bat doakizue, esker onez.

Behinolarenak ez du egingo zenbaki honekin, artean jarraituko du aurrera, noski. Hainbat berrikuntza izango ditu Behinola berriak, baina horiek ezagutzeko pixka bat itxaron beharko dugu.

27. Behinola honetan Euskal- haur- eta gazte-literaturen etorkizunaz egin nahi izan dugu galde. Horrela, *Hizpide* atalean FERNANDO MORILLO, MANU LOPEZ GASENI, XABIER MENDIGUREN eta LURDES AUZMENDIREN artikuluak irakurtzeko aukera izango dugu. Laurek literaturaren munduan eskarmentu handia dute hainbat arlotan: editore, idazle, itzultzaile, kritikoa.

Hitzontzi atalean, IÑAKI ZUBELDIK ipuin arabiar baten egokitzapena egin du: *Bazkari ederra*. Bertan, Farid izeneko eskale ipuin-kontalariaren istorioa kontatzen da. Umoretsua eta lezio bat gordetzen duen istorio bikaina.

Hitzordu sailean, ohiturari jarraiki, GALTZAGORRI ELKARTEAK antolatutako egitasmo baten berri emango dugu. Kasu honetan, *Liburu gaztea booktrailer lehiaketa*. Bistan da, lehengo *Liburu gaztea* sariak teknologia berrieekin bat egin duela 2013. urtean, eta horrek hainbat aldaketa ekarri ditu oinarrietan eta sariaren estrukturan. Informazio guztia *Hitzorduan*.

Azken liburuen erreseinak bilduko dira *Hitz beste* atalean. Adin ezberdinetako haur eta gazteei zuzendatutako liburuen iruzkinak jasoko ditu atal honek.

MARIASUN LANDA, 2012ko irailaren 20an eta 21ean, idazle eta kritikari batzuekin batera, Verines Etxean, Asturiaseko Pendules herrian izan zen, Salamancako Unibertsitateak eta Kultura Ministerioak urtero antolatzen dituzten topaketetan. Jorratu zuten gaia: Gazte literaturaren mugak. *Hitzatzera* ekarri dugu euskal idazleak han azaldu zuen hausnarketa.

Ilustrazioak, barnekoak eta azala, MAITE GURRUTXAGARENAK dira. Benetan adierazkorrak, esanguratsuak, iradokitzaileak...

Hemendik, zorterik onena opa diet LORE AGIRREZABAL eta haren taldeari, *Behinolako* erredakzio-taldeko koordinadore berriari.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi *Behinolaren* ibilbide oparo honetan lagundu diguten guztiak: ilustratzaileak, ipuin-kontalariak, itzultzaileak, Galtzagorri Elkar-tekoak, erreseinatzaileak, artikulu idazleak, idazle sortzaileak, elkarrizketak onartu izan dizkiguteneak, itzultzaileak, *Pamielako* langileak, EIMAKoak, erredakzioko lagunak... zu irakurle eta hemen aipatu gabe utzitako guztiak.

RUBEN RUIZ